

DIRU-SARRERAK

Hiru hilabetean behin, Zumaia-Deba artean egingo den ekintza izango litzateke gurea, eta hori finantzatzeko hainbat diru-sarrereren beharra izango dugu, nahiz eta gure helburua ez den etekinak izatea.

Helikoptero bat beharko dugu labarretan zein haitzetan egongo den zaborra jasotzeko, eta hau, 1.000€ kostako da orduko; kamioia, berriz (erakundeek berenak erabiltzea baimenduko ez baligute), 130€ eguneko. Hiru hilabetetik behin egitea aurreikusten dugun ekintza hauetako bakoitzean, helikopteroak hiru orduko lana izango duela kalkulatu dugu; eta beraz, helikopteroaren kostua 3.000€tara igoko litzateke. Nahiz eta hiru ordurako alokatu helikopteroa, gutxiago izatea espero dugu. Horregatik, rifak saldu eta zozketa bat egingo dugu gelditzen den denbora librean irabazleak kostako itsaslabarretik helikopteroan ibilaldi bat izateko.

Amaitzeko, Udalek zein Urola Kostako elkarteak diru-sarrerak emango dizkigute material eta baita publizitatearentzat. Jarraian agertzen den taulan ikus ditzakegu zifrak:

DIRU-ITURRIA	KOPURUA
Udalaren diru-laguntza	800€
Urola Kostako diru-laguntza	900€
Zozketa (hiruilero rifak: 2€ x 700 = 1400€)	1400€
Kantimplora (20€ X 200 = 4000€)	4000€
Tecnoeraster	120€
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	7220€

Guztia ondo aztertu ondoren, gure **DIRU-SARRERAK 7220€** izango dira. Irabazi asmorik gabeko ekimena denez, justua eta beharrezkoa soilik nahi dugu enpresa martxan mantendu dadin.